



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

GIZA BALIABIDEEN SAILA

PRAKTIKALDIKO LANGILEAK
ebaluatzeko formularioa

Langilea:			
NANa:			
Izen-abizenak:			
Lanpostua:			
Zerbitzua / Unitatea:			
Kontratu mota: Praktikaldia	Hasiera:	Amaiera:	

Ebaluatzailea:			
Izen-abizenak:			
Lanpostua:			
Ebaluazioaren data:			

Ebaluazioa eta balorazioa:

* **Deskribapen eremuan**, deskribatu itzazu arreta eta kontu handiz praktikaldiko gertakari eta egoerak, ahalik eta datu eta xehetasun gehienak emanaz; xedea egoera, gertakari eta jardunbide zehatz, adierazkor eta esanguratsuak definitzea da. Idazteko leku gehiago behar baduzu, egizu eranskinak txertatuta.

* **Balorazio eremuan**, adierazi ezazu zure balorazioa, aurkezten zaizkizun aukeren artean X bat ipinita zure ustezko egokienaren parean.

Euskarazko bertsioa

1.- Zereginak betetzeari buruzko dimentsioak

Jardunbide behagarri eta kuantifikagarri gisa ulertzen dira, lanean jardutearekin zuzenean lotuak.

A. Lanean aritzeko gaitasuna: ezagutzak/gaitasun teknikoa, trebetasunak, gaitasunak, produktibitatea/egindako lan-kopurua eta horretan erabilitako denbora, lanaren planifikazioa, antolaketagaitasuna, arazoei irtenbideak aurkitzeko gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna, estresaren aurreko erresistentzia...

Horien inguruko gertakari eta egoeren deskribapenak, xehetasunez.

Balorazioa.

Adierazi X batez

A.1. Garatu behar duen lan-prozesuen gainean ulermen-maila eta gaitasun tekniko handienak ditu. Goian adierazitako alderdien ikuspegitik lanean jarduteko gaitasun-maila handiena du.

A.2. Oso ondo ezagutzen du lanpostua. Garatu behar dituen lan-prozesuak ezagutu eta ikasteko interes handia nabari zaio. Goian adierazitako alderdien ikuspegitik lanean jarduteko gaitasun-maila ona du.

A.3. Lanpostuaren ezagutza-maila orokorra du. Noizean behin, garatu behar dituen lan-prozesuak ezagutu eta ikasteko interesa nabari zaio Goian adierazitako alderdien ikuspegitik lanean jarduteko gaitasun-maila normala du.

A.4. Lanpostuari buruz ez ditu ezagutzen oinarrizko alderdiak baino. Oso noizean behin nabari zaio garatu behar dituen lan-prozesuak ezagutu eta ikasteko interesik. Goian adierazitako alderdien ikuspegitik lanean jarduteko gaitasun-maila eskasa nabari zaio.

A.5. Ez zaio garatu behar dituen lan-prozesuak ezagutu eta ikasteko interesik nabari. Goian adierazitako alderdien ikuspegitik, ez du batere lanean jarduteko gaitasunik.

B. Lan-kalitatea: zehaztasuna, produktu edo zerbitzuaren kalitatea, ganora, erantzukizuna, gainbegiratu beharra.

Horien inguruko gertakari eta egoeren deskribapenak, xehetasunez.

Balorazioa.

Adierazi X
batez

8.1. Egiten duen lanaren kalitateak aurreikuspenak gainditzen ditu beti. Etengabe saiatzen da bere zereginetan jardutean kalitate hobea lortzen, bikaintasunez betetzen ditu hartutako konpromisoak, egiten duen lana gainbegiratu beharra minimoa da.

B.2. Egiten duen lanaren kalitateak aurreikuspenak gainditzen ditu sarri. Interesa eta ahalegina nabari zaizkio lanean kalitate hobea lortzen, egiten duen lana gainbegiratu beharra txikia da.

B.3. Egiten duen lanaren kalitateak aurreikuspenak gainditzen ditu noizean behin. Noizean behin interesa eta ahalegina nabari zaizkio. Gainbegiratu beharra eskatzen du.

B.4. Egiten duen lanaren kalitatea ez da apenas espero zena. Noizean behin nolabaiteko interesa nabari zaio bere jardunaren kalitatea hobetzeko. Gainbegiratu behar handia eskatzen du.

B.5. Egiten duen lanaren kalitatea espero zena baino eskasagoa da. Ez zaio hura hobetzeko batere interesik nabari. Gainbegiratu behar intentsiboa eskatzen du.

2. Testuinguru-jardunari buruzko dimentsioak.

Jardunbide sozial edo psikologiko gisa ulertzen dira, zereginen burutzapenaren katalizatzaile gisara, hura erraztu edo oztopatzen dutelarik.

C. Pertsonen arteko harremanak, nagusiekin, lankideekin eta/edo zerbitzuaren erabiltzaileekin: integrazio-maila enpresan, lankidetzan, diziplina eta jarrera.

Horien inguruko gertakari eta egoeren deskribapenak, xehetasunez.

Adibidez: laguntza ematen die lankideei, denbora eskainiz, iradokizunak emanez, dakizkien ezagutzak, gaitasunak eta/edo trebetasunak konpartituz.

Balorazioa.

Adierazi X
batez

- | | |
|---|--|
| C.1. Jarrera benetan aparta eta gogo handia nabari zaizkio gainbegiratzailerik, lankide eta erabiltzeekiko harremanetan eta haiekiko lankidetzan, hartara harmonia gordetzeko eta bere lan-atalaren kanpo-irudia hobetzeko. | |
| C.2. Sarritan jarrera ona eta gogo nabari zaizkio gainbegiratzailerik, lankide eta erabiltzeekiko harremanetan eta haiekiko lankidetzan, hartara harmonia gordetzeko eta bere lan-atalaren kanpo-irudia hobetzeko. | |
| C.3. Noizean behin jarrera ona eta gogo nabari zaizkio gainbegiratzailerik, lankide eta erabiltzeekiko harremanetan eta haiekiko lankidetzan, hartara harmonia gordetzeko eta bere lan-atalaren kanpo-irudia hobetzeko. | |
| C.4. Gutxieneko jarrera eta gogo nabari zaizkio gainbegiratzailerik, lankide eta erabiltzeekiko harremanetan eta haiekiko lankidetzan, hartara harmonia gordetzeko eta bere lan-atalaren kanpo-irudia hobetzeko. | |
| C.5. Gainbegiratzailerik, lankide eta erabiltzeekiko harreman inter-pertsonalek ez dute harmonia gordetzen laguntzen, ez eta bere lan-atalaren kanpo-irudia hobetzen ere. | |

D. Ekimena eta hobekuntzaren aldeko jarrera. Perseberantzia. Auto-garapena. Konpromisoa erakundearekin. Ordezkaritza, leialtasuna.

Horien inguruko gertakari eta egoeren deskribapenak, xehetasunez.

Balorazioa.

Adierazi X
batez

D.1. Zeregin egokiak burutzen ditu berariaz halakorik eskatu ez dioten arren, eta iradokizun lagungarriak proposatzen ditu lan-sistema eta -prozedurak hobetzeko asmoz.

D.2. Gaitasun handia dauka lan-sistema eta -prozedurak hobetzeko asmoz ideia eta iradokizun lagungarriak emateko.

D.3. Noizean behin ideia eta iradokizun lagungarriak ematen ditu, lan-sistema eta -prozedurak hobetzeko asmoz.

D.4. Oso noizean behin ideia eta iradokizun lagungarriak ematen ditu, lan-sistema eta -prozedurak hobetzeko asmoz.

D.5. Ez du interes handirik lan-sistema eta -prozedurak hobetzeko asmoz ideia eta iradokizun lagungarriak emateko.

3. Erakundearekiko jardunari buruzko dimentsioak.

Langilearen menpe egonik, erakundearentzat lagungarri diren gisa ulertzen dira, jokamolde edo jarrera kontra-produktiboen kontra.

E. Asistentzia eta puntualtasuna. Ordena eta garbitasuna. Erabilera egokia, nola material suntsikor eta ez suntsikorrena, hala enpresren ekipamenduarena.

Horien inguruko gertakari eta egoeren deskribapenak, xehetasunez.

Balorazioa.

Adierazi X
batez

E.1. Beti egoten da bere lantokian, hantxe izaten da ezarritako jardunaldi eta ordutegian. Ez du lantokitik alde egiten, egoki eta kontu handiz erabiltzen du materiala, hura onik zaintzen eta iraunarazten saiatzen delarik.

E.2. Ez du inoiz lantokitik aldetik eta, oro har, goiz iristen da. Oso noizean behin egiten du lantokitik alde. Egoki eta kontu handiz erabiltzen du materiala, hura onik zaintzen eta iraunarazten saiatzen delarik.

E.3. Ez du ia inoiz lanetik alde egiten, eta noizean behin berandu iristen da. Noizean behin ez da lantokian egoten. Kontu berezirik egin gabe erabiltzen du materiala, ez oso modu egokian.

E.4. Lanetik alde egiten nolabaiteko maiztasunez, eta noizean behin berandu iristen da. Ez du konturik jartzen haren esku utzitako material eta lanabesak zaintzeko.

E.5. Huts egiten dio lanari, eta oso maiz iristen da lanera berandu. Huts egiten duenean kalte egiten dio eskaintzen duen zerbitzuari. Batere konturik gabe erabiltzen ditu haren esku utzitako material eta lanabesak, eta, ondorioz, ez dira onik zaintzen, ez behar beste iraunarazten.

F. istripuen prebentzioa.*Horien inguruko gertakari eta egoeren deskribapenak, xehetasunez.*

Balorazioa.

Adierazi X
batez

F.1. Beti betetzen ditu bere lanposturako ezarritako segurtasun- eta higiene-arauak.

F.2. Oro har, betetzen ditu bere lanposturako ezarritako segurtasun- eta higiene-arauak.

F.3. Nekez betetzen ditu bere lanposturako ezarritako segurtasun- eta higiene-arauak.

F.4. Sarritan urratu egiten ditu bere lanposturako ezarritako segurtasun- eta higiene-arauak.

EBALUATZAILEAREN PROPOSAMENA

Gainditu du probaldia.

Ez du probaldia gainditu.

Arrazoa:

Izp.:

Ebaluatzailea

_____ eranskin-orrialde gehitu zaizkio txosten honi.

GIZA-BALIABIDEEN KUDEAKETAREN ZERBITZUKO BURUAREN PROPOSAMENA

Gainditu du probaldia.

Ez du probaldia gainditu.

Arrazoa:

Izp.:

_____ eranskin-orrialde gehitu zaizkio txosten honi.

ALKATEAREN EDO ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN EBAZPENA

Gainditu du probaldia.

Ez du probaldia gainditu.

Arrazoa:

Interesdunari ebazpen honen berri ematea eta jakinaraztea agortu egiten duela administrazio-bidea, eta, berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango dela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, BI HILABETeko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik kontatuta, edo, aukeran, berraztertze-errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, HILABETeko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik kontatuta; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, BI HILABETeko epean aurkeztu ahal izango dela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, errekurtso ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik kontatuta, edo, ebazpena ustezkoa bada, SEI HILABETeko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Hala agindu eta sinatzen du Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak, 2020koren ...(e)an.